

LEHEN EUSKAL I

60. hamarkadaren bukaeran eta batez ere 70. hamarkadan lehen aldiz euskaraz kantatzen hasi ziren herriko plazetan, tartean gure bailarako kantari batzuk zirela. Garai politiko bizi hartako txima luzeak bakandu dira Kitxi, Xalton eta Xantosen buruetan.



Donostiako Seminarioa izan zen "Enarak" taldearen sorrerak. Bertako ikasle batzuk osatu zuten: Legorretako Jon Iturrioz kantaria, Pasaiaiko Meltxor Mariñkalar gitarra baiorarekin, Donostiako Jesus Calvete baterian, Arrasateko Antton Lopez gitarrarekin eta Arnezketako Jose Mari "Kitxi" Iturririta tekladoan. Kitarrak utzi eta hilabete batzuetan Eduardo Moreno "Portur" ezaguna aritu zen eta ondoren Donostiako Jaime Stinus, umea zela, gerora Orquesta Mondragonen eta gaur egun "Revolver" taldean eta disketxe batean aritzen dena. Beraien asmoa rocka euskaraz egitea zen.

Kitxi Iturririta bere kontura hasi zen tekladoa eta kitarra ikasten, nahiz eta gero Yaben irakasle ezagunarekin aritu. "Euskal kantak edo alzerriko kanta ezagunak hartu eta taldorako moldatzen genituen, beti euskaraz: Bob Dylan, Creedence, Donostiara etorri berri den John Mayal blues txuriko artista, Mody Blues..." dio arnezketarrak. 17 urte zituela hasi eta handik bi urtelara, 1969an, diska grabatu zuten Herri Gogoa disketxean, hiru kanta jasoz: Solferinoko itsua eta Ama klasikoak eta Juan Mari Lekuonaren hitza duen Bainan ez. Urrietako zinean gau batean grabatu zutela gogoratzen du. Gutxi saldu omen zen, baina oraindik eskura daiteke duela gutxi Elkar disketxeak argitaratutako "Kantu nostalgikoak" bilduman baitago.

Seminarioan bertan egin zituen Enarak taldeak bere lehen aktuzioak (musika ye-yeko mozotan), baina gero gazteen lokaletan, politeknikoetan, plazetan (Tolosaldeko gehienak) eta batez ere diskotekotan (Azkoitiko

Ilarra adibidez) aritu ziren lau urte luzez, horietako bi geratu gabe. Ez Dok Amairuko Lete, Lertxundi, Laboa, Artze anaiak eta horiekin askotan jo zuten. 1971n soldaduskara joan behar izan zuten taldekide batzuk eta han bukatu ziren musikari gazte hauen ametsak. "Azken emanaldia Tolosako Thunders diskotekan eman genuen, batzuk soldaduskan ginel" gogoratzen du.

XALTON ZABALA PROTESTA KANTARI KLANDESTINOA

Kantari "reboluzionario" eta klandestino gisa definitzen du bere burua eta garai hartako argazkiak ikusi besterik ez dago. Orduko txapela eta txima luzeak joan zaizkio Xalton Zabala arnezketarrari eta kitarra utzi eta pilotari hiedu zion duela urte batzuk, herriko pilotarien entrenatzailea izanik gaur egun. "30 urte arte garberrero hutsa izan nintzen. Gero ezkondu, lan finkoan hasi eta formaldu egin nintzen" dio berak. Kitarra jotzen ondo ikasi gabe, urte batzuetan kantatzetik bizitzera itzuli zen, beti besteek utzitako kitarrekin.

Arantzazuko fraile-elan ikasi zuten hiru Zabala anaiak: Pello eguraldi gizon eta musika aditu ezaguna, Iñaki eta Jose Antonio "Xalton". Lau urtetik zazpi urte izan arte ohan gaiso egon eta gero oinez berriz ikasi behar izan zuenez,

saltoka bezala ibiltzen zelako jarri zioten izengoiti hori. Egan taldeko Frantzescina azpeitiarra eta Imanol berastegierra bezala, Arantzazun hasi zen musika munduan: koroan kantatzen, dantza taldearen ardura eramaten eta anaien kitarrekin ikasten. "Benito Lertxundik gazte lehiaketa bat irabazi zuen Txoria kalean kantarekin. Letra gure anaia Pellorena zenez, sariaren zati bat berak jaso zuen eta diru harekin kitarra erosi zuen" dio Xaltonek.

Ama alargunak elxean laguntza behar zuela eta fraileetatik alera, 15 edo 16 urte zituela, eta Arnezketako paperlabrikan hasi zen lanean. Elizaren babesean zegoen Oargi taldean hasi zen, amba Kororen bitartez, kultur ekintzak eta euskal jaiak antolatuz. Papeleratik Ormaiztegiko Irizar kooperatibara pasatu



KANTARIAK



Xantos ibartarra senide baten ezkontzan kantatzen.

zen, baina han esplotazio handia zegoen: ordu extrak ordaindu ez, bokadiloa jateko bost minutu, sirenaren mende... Kanta bat egin zuen hango egoera azaltzeko. Gero Burgoseko epaiketa iritsi zen (epai-tuen artean Antton Karrera amezketarra zegoen) eta greban atera zirelako, Xalton eta beste zortzi lagun kale-ratu eta bizitza osorako espedientea jarri zieten Irizarren.

KOADRILA GIROAN HASITA

Herriaren problematika hori eta lanik gabe zegoela ikusita kantatzeari ekin zion Xaltonek. Koadrilan mendira joateko, txapela jatzeko (inglesa ikastea eta markako arropa jatzeko gaizki ikusten zuten) eta kantatzeko ohitura zuten. Modan zeuden kanta hartu eta euskarazko hitza jartzen zien. Hala hasi zen Xalton kantari. Lehen aktuazioa Idiazabalgo San Blas jailetan izan zuen, Pantxoa ta Peio eta herriko neska batekin, Irizarko lankide batzuk esanda, gero ezagutu ez duen areto batean. Sekulako arrakasta izan zutela gogoratzen du.

Garai haietan Ez Dok Amairu talde-

ak zuen indar handia eta kantaldien monopolioa. Oso legalistak omen ziren gainera, hitzak zentsuratik pasatuz. Mitxel Intxausti lasartearra, Hibi Rekondo eta Intxaurrendoko Bengoetxea etorri zitzaizkion Imanol Larzabalekin batera Ez Dok Amairuri aurre egiteko. Lehen aktuazioa Zizurkil goian egin behar zuten, baina bezperan Imanolek Iparraldera aldegin zuen. Hango eta hurrengo kantaldietako dirua hari bidali genion. "Sekulan ez dut Imanolekin hitzegin, haren bidez hasi arren. Txato Agirreren letra zuen Heldu da udaberria bereziki gustatzen zitzaizdan" esan digu Xaltonek. Gero urte asko Donostiako Alde Zaharreko Xiker kantariarekin batera aritu zen kantaldiz kantaldi.

Bere kanten letrek ez zuten zentsurarik pasatzen eta iragarkietan ez zuten beraien izenik jartzen, eskuzko programetan edo karteletan eskuz idatzita besterik ez ziren agertzen. Hala ere arrakasta handia izan zuen klandestinitate giro hartan. Bukaeran eskatutako kanta kopuruan neurtzen zen arrakasta. Ataunen Erlak bikote pasaitarrarekin ("Ile txuri beti hotz"), Beotibarren Lurdes Iriondorekin,



MARTIN
ECEIZABARRENA

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde 11
Tel: 672445
Mobila: 908-774822 TOLOSA

SAIOA

Arropa denda

Korreo kalea Tfnoa: 65 45 32 TOLOSA



CE FIRE
Fisioterapia Zentroa

Kirol fisioterapia
Erredukazio posturala
Erreabilitazioa

Gudari kalea 4, 1. Esk.
Tolosa Telf: 65 14 43



GORRI, S.A.

PAPER
MANIPULAZIORAKO
MAKINA ERAIKUNTZA
KONPONKETA ETA
MANTENIMENDUAK

Beotibar Industriagunea
20491 BELAUNTZA 67 15 90

LEHEN EUSKAL KANTARIAK



■ Enarak taldea: Kibxi Iñurrita, Meltxor Maritxalar, Jon Iturrioz, Antton Lopez eta Jesus Calvete.

Oñatin Lertxundirekin, Hernaniko Puerton, Adunan Urkorekin, Gontzal Mendibil eta Xeberriekin, Gorka Knörrekin, Errobirekin, Jon

Bergaretxerekin, Itsasondoko Enbor bikotearekin, Josu eta Jokinekin, e.a ibili zen kantari 1969tik 1980 arte. Egun batzuetan hiru emanaldi izate-

ra iritsi zen eta Argeliako telebistan ere kantatu zuen, osaba apaizaren bitartez.

Pernando Amezketarra birraitonaren aita zuten eta hitzak sortzeko gaitasuna badu Xaltonek. 80 kanta atera eta idatzi gabe eduki zituen, beldurrez. Argazkiak ere ez zituen oso gustoko, arrazoi berberagatik. Fernando Unsainek diska bat grabatzeko aukera eman zion, baina ez zuen nahi izan, zentsura pasatzeko hitzak aldatu behar zituelako eta kontsumismoan sartzea iruditzen zitzaiolako.

Tolosaldean dexente aritu zen: bere herriaz gain, Tolosako San Blasén, Zerkausin... Zezen Plazan Shanti tabernaren alde 1979an egin zen jaialdian ere parte hartu zuen, baina nahasketa handia izan zela gogoratzen du. Orduan rockeroak

hasten ari ziren, Errobi taldea eta horiek, eta jende gazteari lekua utzi zien. Lehenago, Poker eta Zafiro bezalako berbena taldeak euskaraz ez



ERROTATXO
OKINDEGIA

Andia kalea, 3
☎ 65 54 92

Amaroz, 9 A
☎ 67 10 38

TOLOSA

TOKOLATEGIA



MERIENDAK, TXURROAK

Nafarroa, 1

TOLOSA
☎ 65 18 30

KAFETEGIA



euromutua

SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMAS FIJAS

ASEGURO
MOTA GUZTIAK



VITALICIO
SEGUROS

Foruen etorbidea 4, 1. Ezk.

20.400 TOLOSA

Telf: 943-65.22.20 Faxes: 943-65.41.19

Foruen etorbidea z/g
20.400 TOLOSA

Telf: 943-65.37.46 Faxes: 943-65.46.77

aritzeagatik harrika hartzen zituzten bezala, erretiratzeko garaia iritsi zitzaioala ikusi zuen kantari amezketa-rrak.

XANTOS AGIRREZABALA GAI SOZIALEN KANTARIA

Xantos Agirrezabala ibartarrak Ez Dok Amairu taldeko eta garai hartako kantari gehienekin aritu zen 70. hamarkadan: Xabier Lete, Antton Valverde, Lurdes Iriondo, Lupe, Natxo de Felipe, Pantxo ta Peio, Gorka Knörr, Iñaki Eizmendi, Hibiak Rekondo, Xalton, Urko, Xeberri eta Gontzal Mendibil... Baina gehien miresten duen kantariarekin ez zuen lortu kantatzerik, Benito Lertxundirekin. Gai sozialak tratatzen zituen bere kantetan, eta garaioekin konparatuta, suabe xamarak.

Kitarra ikasten 16-17 urterekin hasi zen Ibarrako mojetan, Benito Lertxundiren kantak ikasiz. Gero bere kantak egiten hasi zen, batzuen Manolo Gogorzaren letrekin. Handik urte gutxira herriko gazte festetan jo zuen lehen aldiz jendaurrean, Pantxo eta Peiorekin batera, plaza jendez beteta zegoela. Urte batzuetan dexente ibili zen herriko jaietan, uda partean batez ere, eta ikastolako

festetan. Gizonaren nortasuna kanta ezaguna egin zuen eta lagunak oraindik gogorarazten diote tarteka.

"Ez nuen buila handirik ateratzen eta gaizki pasatzen nuen altaboza handirik ez zen tokietan" esan digu Xantosek. Bukaera aldean kantu txapelketa batzuetan parte hartu zuen Javier "Tiko" Colmenerorekin (txirula) edo anaia Jose Migelekin (ahotsa). Batean finalera iritsi ziren. Elduainen, Bidanin, Olarrainen, Donostiako fakultate batean, Urkizun, Lizartzan, Bakaikun Oskorriekin hasi berrian, Izaskunen, Tolosako zezen plazan izandako kantaldiak gogoan ditu oraindik.

Baina berbenetan eta ezkontzetan jotzen egin zuen denbora gehiena kantari ibartarrak. Jaiak taldeko batzuekin hasi zen eta gero Karraxi eta Kamer taldeetan aritu zen, Javier Garcia de Iturrospe tolosarra batera joan tartean zela. Donostian jazz ikasten eta Tolosan Jon Ander Larrañagarekin kitarra klasikoa ikasten saiatu zen, baina aurrerapenik ez zuela egiten ikusita, utzi egin zuen duela sei bat urte. **G**

Joxemi Saizar

LARRAITZEKO GAUPASA

1970eko urrian, larunbata batean, gaupasa antolatu zuen Enarak taldeak Larraitzen Tolosako lagun batzuekin, egiten zen lehendabizikoa. Gerora akelarrea deitu zuten festa ospetsua izan zen. Ez Dok Amairu taldekoak eta beste batzuk aritu ziren kantari. Uste baino askoz jende gehiago bildu zen eta jarritako taberna koskorrean edariak ordu erdian agortu ziren.

Xalton jendaurrean kantatzen hasi gabe zegoen oraindik, baina kanta bat edo beste. Argindar

gutxi zuten eta itzalketa ugari izan ziren. ETako propaganda banatu zen eta hurrengo egunean bonba jarri zuten Ordizian. Batzuk gaupasarekin erlazionatu zuten eta egurra eman zieten Ez Dok Amairukoei, El Pensamiento Navarro egunkariak eta. "Komentario asko izan ziren herrian. Jendea larrutsik ibili zela eta. Nola ibiliko ziren kristoren hotza egiten zuen eta? Gure ama han zen eta ez zuen horrelakorik ikusi" kontatu digu Kitxi Iñurritak.



AVERZA
kirolak

P.Gorosabel, 22
65 52 15 TOLOSA

Sónar
Bideokluba

VIDEOCHANGE

24 orduko serbitzua
eskeintzen dizugu.

Gudari kalea 15
TOLOSA
Telf: 65.37.56



Argazki Foto
Karlis

Pablo Gorosabel 6. Tolosa
Telf: 65 41 41 - Fax: 65 41 41

GALTZAUNDI
EUSKARA TALDEA

GUZION TALDEA!

Xirimiri Txokolategia
Xabier Izaguirre

"Gosariak eta meriendak"

Errementari kalea, 40 - Tínoa: 67 52 23 Tolosa